# GETXOKO UDALERRIAREN DINAMIZAZIO EKONOMIKORAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA, ENPRESARIEN ETA PROFESIONALEN ELKARTEEI ETA FEDERAZIOEI ZUZENDUTA. 2024. URTEA.

## 3. lerroa: Getxoko merkatarien eta ostalaritza-jatetxeen elkarteentzako elkartegintza mantentzeko eta sustatzeko laguntzak.

| | |
|---|---|
| ***Xedea*** | Elkarteetan, bazkideak (saltokiak, ostalaritza eta zerbitzu pertsonalak) mantentzea eta berriak sartzea sustatzea. |
| ***Onuradunak*** | Getxoko udalerriko merkatarien eta ostalaritzaren-jatetxeen elkarteak, hurrengo baldintzak betetzen badituzte:<br>• Jarduera eta sozietatearen egoitza Getxoko udalerrian izatea.<br>• Getxoko elkarteen udal-erregistroan eta Eusko Jaurlaritzako elkarteen erregistroan inskribatuak egotea. |
| **Dirulaguntza jaso dezaketen kontzeptuak** | Diruz lagunduko da 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean Getxoko eta Pinueta auzoko saltokien, ostalaritza-jatetxeen eta zerbitzu pertsonalen bazkide berriak mantentzea eta areagotzea. |
| ***Zenbatekoa*** | **a) Bazkideak mantentzea**: Zenbateko finko hau emango da 2023ko abenduaren 31ko bazkide kopuruaren arabera:<br>• 100 bazkide bakoitzeko: 135 euro bazkide bakoitzeko<br>• 50 bazkideko: 100 euro bazkide bakoitzeko<br>• 10 bazkideko: 80 euro bazkide bakoitzeko<br>• Bazkide 1 bakoitzeko: 50 euro bazkide bakoitzeko<br><br>Adibidea: Bazkide kopurua guztira 163<br>Lehenengo 100 bazkideengatik (13.500 €), hurrengo 50 elkartuengatik (5.000 €), hurrengo 10engatik (800 €) eta, azkenik, gainerako 3engatik (150 €).<br><br>**b) Bazkide kopuruaren** igoera garbiagatik: 150€ establezimendu elkartuaren gehikuntza garbiagatik. Bazkide berriak zenbatzeko aldia, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra.<br><br>Dirulaguntza jaso ahal izateko, gutxienez 50 bazkide izan beharko dira 2023ko abenduaren 31n.<br>Bi kasuetan, deialdiaren 20.3 artikuluan zerrendatutako epigrafeei dagozkien Getxoko eta Pinueta auzoko negozioak bakarrik hartuko dira kontuan.<br><br>Eman beharreko zenbatekoa eskuragarri dagoen aurrekontua baino handiagoa bada, hainbanatu egingo da. |



Getxo Elkartegia. Ogoño 1. 48930 ● Tel. 94 466 01 40 ● Fax. 94 466 01 49 ● www.getxo.eus/promocion-economica ● email: getxolan@getxo.eus

| | |
|---|---|
| ***Eskabideak aurkeztea*** | Laguntza-eskaerak telematikoki izapidetu beharko dira. Izapideak www.getxo.eus/aeb web orriaren bidez egingo dira.<br><br>Martxoaren 1era arte |
| ***Ordaintzeko modua*** | %100 aldezko ebazpena eman ondoren |
| ***Justifikazioa*** | Ez da beharrezkoa |
| ➢ Informazioa non lor daitekeen | ➢ BAO zk 23, 2024/02/01<br><br>➢ Getxolan. Getxo Elkartegia. Ogoño, 1. Getxo. Tlfnoa: 94 466 01 40.<br><br>➢ E-maila: getxolan@getxo.eus<br><br>➢ WEB orrialdea: https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica |